

## Kanpotik nator!

Goizeko lehen printzekin begiak ireki,  
hau ez da nirea  
ez dator bat nirekin,  
leku arrotz honetan ez dut lekurik.  
Mesedez ez nazazue tirokatu zuen hitzekin!  
Gaizkile gisa fitxaturik  
etorkin izenaren zama bizkarrean dakart.  
Herri ezezagun honetan bueltaka nabil,  
ez dut sorbaldan inoren eskurik.  
Ikasi dut bertako hizkuntza  
baina ezin dut komunikatu zuekin.  
Zure aire berdina arnasten dut  
zure paisai bera ikusten dut  
zure amets berberekin gozatzen dut,  
ez al dut zure errespetua merezi?  
Zapore garratzez kalean gora noala  
irri gozo batek ihes egin dit  
ezti artean ezkutatutako geroari begiratu.  
Balantzaka, ez dut nora hilik erori,  
lur honek ez du nire gorputzarekin zikintzerik merezi  
nire hilotzarentzat ez dago hilerririk.  
Baina oraindik atsekabez jositako soineko hau  
gainean eramango dut sarri.  
Lurraldean mugak zeharkatu ditut,  
baina ezin dut! Herri honen bihotza zeharkatu.  
Etorkizunean, ez ditut zapalduko  
txikitako lorratzak,  
izana eta ezina atzean utzirik  
kanpotar izatearen itzala daramat kateekin loturik.  
Gustura oihukatuko nuke askatasuna  
baina ez nazazue zuen begiradekin iltzatu.  
Malko ugari isuri ditut sorterrian,  
eta hemen botako dut bizitzearen izerdia.  
Kanpotar dudan odol hau  
herri honengatik emango nuke.  
Bizi hobe baten bila  
eskutatik ihes egin dit izarretara,  
nire zainetan itxaropena dabil,  
zoriontasuna berriz ezkutaketetan jolasten.  
Ur basati hauetan erretzen naiz  
sutan berriz ito,  
nola aurre egin honi?  
Ireki zuen bihotza  
inguratzen duen harresi hori.  
Utzi hemen bizitzen, mesedez!  
Bizia arnasten inongo kezka barik.